

## **ZERTAN DATZA GURE ENPRESA?**

Konfinamendu hasieratik arazo edo gaixotasun psikologikoen presentzia areagotu egin da gizartean. Arazo psikologikoen artean desberdinak daude, besteak beste, etxean egoera larria, tratu txarrak jasan izana, egoera ekonomiko gogorra... Guk proposatzen duguna egoera zail hauei aurre egin behar dien pertsoneri laguntza psikologikoa eskeintzea da. Horrez gain, egoera batzuetan hitzen bidezko laguntza ez da nahikoa eta egoera horiek konpontzeko edo jendeari bere bizi kalitatea hobetzen saiatzeko, beste enpresa batzuekin kontaktuan jarriko gara, horrela, beraien arazoen irtenbidea bidera dezakegu. Beraz, psikologoez gain, abokatuak eta administrariak egongo dira.

Gure bezeroek edozein motatako laguntza behar dutenean, bitartekari lanetan jardungo dugu. Hau da, gu arduratuko gara beraien beharrak asetzeko egin beharreko jarduerak egitera. Esate baterako, adin nagusiko pertsona bat etxetik atera ezin bada eta norbaitek erosketak etxera eramateko beharra badu, gurekin kontaktatzeko aukera izango du, eta gure ardurapean geldituko da behar duen guztia bere etxera iristea. Izan ere, beste enpresa batekin kontaktuan jarriko gara lan hori egin ahal izateko.

Gure rola enpresan arlo bakoitza, psikologo, abokatu eta administrariena, koordinatzea izango da. Hau da, talde bakoitza gidatuko duen pertsona. Hasieran, ez ditugu langile asko kontratatuko, eta denbora pasa ahala, beharren arabera, talde bakoitzean langileak sartzen joango gara. Enpresaren sortzaileak lau garenez eta hiru talde nagusi ditugunez, horrela banatuko gara: 2 pertsona psikologo taldean, bat abokatueta eta beste bat administrarietan. Psikologo taldeari garrantzi handiagoa ematearen arrazoia gure helburu printzipala delako da. Izan ere, gure enpresaren zerbitzu garrantzitsuena laguntza psikologikoa da, hortaz, nahitaezkoa iruditzen zaigu gehienbat horretan zentratzea.